9.9.3.2.5.– Parkearen eta bere eraginpeko eremuaren baliabide turistikoen inbentarioa egingo da eta Parkearen informazio-guneez baliatuta hauen berri eman ahal izango da.

9.9.3.3.– Komenigarriak.

9.9.3.3.1.– Arestian aipatutako kolektiboen komunikabideak erabiliko dira (mendi, bizikleta, eskalada, ornitologia, espeleologia eta abarri buruzko aldizkari espezializatuak) kolektibo horiexei egokitutako informazioa eskaintzeko.

9.9.3.3.2.– Hezkuntzaren ikuspegitik interesgarriak izan daitezkeen lanak egin edo instalazioak dauden lekuetan (urtegia, lehengoratze ekologiko-paisajistikoak, ondare zaharberritzeak eta abar), hauen guztien informazioa eskainiko da aldi baterako taulez edo egokitzat jotzen diren bestelako elementuez baliatuz.

9.9.3.3.3.– Parkeko ibilbideen sarean komenigarritzat jotzen diren norabide-seinaleak eta balizak instalatuko dira. Horrez gain, bisitariari harrera elementu desberdinak (aparkalekuak, Parketxeak...) non dauden aditzera emateko behar diren guztiak jarriko dira.

9.9.3.4.– Baldintzatuak.

9.9.3.4.1.– Bisitariak ezagutu edo gogoratu behar duen muga-mota bereziren bat duten lekuetan bertan seinaleak jarriko dira.

9.9.3.4.2.– Dulverton Proiektuan barne hartzen diren Europako beste parke batzuekin informazio- eta gazte-trukeak egingo dira.

9.10.– PARKEARI LAGUNTZEKO TALDE PRIBATUAK.

9.10.1.– Kudeaketa-norabideak eta -irizpideak.

9.10.1.1.– Parkearen irudia gizarteratzea, berau herritarrengana hurbilduz eta Parkean interesa duten irabazi asmorik gabeko erakunde desberdinekin harremanetan jarriz. Hauek Gorbeiako Parke Naturalaren Lagunak izen orokorra izango duten elkarte edo taldeak osatu ahal izango dituzte.

9.10.1.2.– Talde hauek planteatzen dituzten ekimen eta lanak bultzatzea, eztabaidatzen eta abiarazten parte hartzeko aukera emanez.

9.10.1.3.– Kolektibo hauek lanean jarritako giza baliabideak koordinazio egoki baten bitartez optimizatzea.

9.10.2.– Jarduketak.

9.10.2.1.– Beharrezkoak.

Aipatutako taldeak sortu, babestu, finantzatu eta Parkearen funtzionamendu-egituran sartzeko mekanis-

los contenidos informativos y divulgativos a sus demandas (temas específicos, normativa, etc.).

9.9.3.2.5.– Se realizará un inventario de los recursos turísticos del Parque y su área de influencia, que podrá ser divulgado aprovechando los puntos de información del Parque.

9.9.3.3.– Convenientes.

9.9.3.3.1.– Se utilizarán los medios de comunicación específicos de los colectivos antes señalados (revistas especializadas de montaña, bicicleta, escalada, ornitología, espeleología, etc.) para ofrecer información adaptada a los mismos.

9.9.3.3.2.– En aquellos lugares donde se realicen trabajos o existan instalaciones que puedan ofrecer interés desde el punto de vista educativo (embalse, regeneraciones forestales, restauraciones ecológico-paisajísticas, de patrimonio, etc.) se ofrecerá información de carácter divulgativo a través de paneles temporales u otros elementos que se consideren oportunos.

9.9.3.3.3.– Se instalarán las señales direccionales y balizajes que se consideren convenientes en la red de itinerarios del Parque, así como aquellas precisas para informar al visitante de la localización de los diversos elementos de acogida: áreas de aparcamiento, Casas del Parque, etc.

9.9.3.4.– Condicionadas.

9.9.3.4.1.– Se señalizarán sobre el terreno aquellos lugares en los que exista algún tipo de limitación especial que el visitante deba conocer o recordar.

9.9.3.4.2.– Se realizarán intercambios juveniles y de información con otros parques europeos integrados en el Proyecto Dulverton.

9.10.– GRUPOS PRIVADOS DE APOYO AL PARQUE.

9.10.1.– Directrices y criterios de gestión.

9.10.1.1.– Integrar la figura del Parque en la Sociedad mediante el acercamiento y establecimiento de una serie de relaciones con diversas entidades sin ánimo de lucro interesados en el mismo, que podrán constituirse en asociaciones o clubes bajo el nombre genérico de Amigos del Parque Natural de Gorbeia.

9.10.1.2.– Apoyar las iniciativas y trabajos planteados por estos grupos, facilitando su participación en la discusión y puesta en marcha de los mismos.

9.10.1.3.– Optimizar los recursos humanos invertidos por estos colectivos a través de la coordinación con los mismos.

9.10.2.– Actuaciones.

9.10.2.1.– Necesarias.

Se analizarán los mecanismos de creación, patrocinio, financiación, integración en la estructura de fun-

moak aztertuko dira, bai eta Parkeari laguntzeko talde eta elkarteekin zerikusia duten alderdi guztiak ere.

9.11.– BISITARIAREN SEGURTASUNA.

9.11.1.– Jarduketak.

9.11.1.1.– Presazkoak.

9.11.1.1.1.– Bisitariari jabearaztea norberak arduratu behar duela bere segurtasunaz, arrisku-jarduketa edo -egoeraz ohartaraziz: lainoa, aurriak erortzeko arriskua, leizeak eta abar. Arrisku hauetaz ohartarazteko aholkuak gaineratuko dira liburuska eta tauletan, bai eta Parkearen harrera-zerbitzuek beraiek ere.

9.11.1.1.2.– Tabernak edo aterpeak dituzten atseden-eremuetan edo Baiako zentralean osasun-laguntza eskaintzeko oinarrizko materiala izatea (botikina eta abar).

9.11.1.2.– Beharrezkoak.

Publikoarekin harremanetan den pertsonala (zaintza, informazioa, begiraleak eta abar) osasun-larrialdiko egoeretan lehen laguntzak eskaintzeko gai izan dadin prestatzea.

9.11.1.3.– Komenigarriak.

Parkeko sorospen eta larrialdiko sisteman artzainak inplikatzea, hauek transmisore- eta telefono-sareaz ekipatzea aurreikusten baita.

9.12.– JARRAIPEN-PLANA.

9.12.1.– Kudeaketa-norabideak eta -irizpideak.

Atseden-erabileren bilakaera ezagutzea (espazioa eta denbora banatzeko eredu dinamikoak), etorkizunean kudeaketa-egoera berrietara egokitu ahal izateko.

9.12.2.– Jarduketak.

9.12.2.1.– Beharrezkoak.

Erabilera publikoko Jardueren Jarraipen Plana idaztea. Jarduera hauei loturiko erabilera eta eraginak inbentariatzeko lan sistematikoa eta aldizkakoa eta koalitatiboa eta koantitatiboa izango da plan honen oinarria.

9.13.– ZERBITZU OROKORRAK.

9.13.1.– Kudeketa-norabideak eta -irizpideak.

Parkeko zaintzaile-kopurua indarrean dagoen araudia (Foru Arau eta Dekretuak, Natur Baliabideak Antolatzeko Plana, Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailea) aplikatzearen ondoriozko kontrol-beharretara egokitzea. Parkeko zaintzaileek Parkearen eraginpeko zonara zabal ditzakete beren funtzioak, baldin eta zona hauetan Parkearen erabilera publikoaren ondoriozko arazoren bat sortzen bada.

9.13.2.– Jarduketak.

9.13.2.1- Presazkoak.

cionamiento del Parque, y todos aquellos aspectos relacionados con los grupos y asociaciones de apoyo al Parque.

9.11.– SEGURIDAD DEL VISITANTE.

9.11.1.– Actuaciones.

9.11.1.1.– Urgentes.

9.11.1.1.1.– Inculcar al visitante que su seguridad depende de él mismo, avisándole de aquellas actuaciones o situaciones de riesgo: días de niebla, peligro de derrumbamiento de ruinas, simas, etc., mediante inclusión de estos consejos en folletos, paneles y desde los propios servicios de recepción del Parque.

9.11.1.1.2.– Disponer del material básico para asistencia sanitaria «in situ» (botiquín...) en las áreas recreativas con bares o refugios y en La Central del Baias.

9.11.1.2.– Necesarias.

Preparar al personal que está en contacto con el público (guardería, información, monitores, etc.) para que sea capaz de administrar los primeros auxilios en situaciones sanitarias de emergencia.

9.11.1.3.– Convenientes

Implicar a los pastores como parte del dispositivo de socorro y emergencia del Parque, gracias a la red transmisores y teléfonos con que está previsto equiparlos.

9.12.– PLAN DE SEGUIMIENTO.

9.12.1.– Directrices y criterios de gestión.

Conocer la evolución de los usos recreativos (modelos dinámicos de distribución espacial y temporal) que permita adaptar la gestión futura a las nuevas situaciones.

9.12.2.– Actuaciones.

9.12.2.1.– Necesarias.

Redactar un Plan de Seguimiento de las Actividades de uso público, el cual deberá basarse en una inventariación sistemática y periódica, cualitativa y cuantitativa, de los usos e impactos asociados a los mismos.

9.13.– SERVICIOS GENERALES.

9.13.1.– Directrices y criterios de gestión.

Adecuar el número de guardas del Parque a las necesidades de control que resultan de la aplicación de la normativa vigente (Normas y Decretos Forales, Plan de Ordenación de los Recursos Naturales y Plan Rector de Uso y Gestión). Los guardas del Parque podrán extender sus funciones a la zona de influencia del mismo siempre que exista en ella algún problema derivado del uso público del Parque.

9.13.2.– Actuaciones.

8.13.2.1.– Urgentes.

Narriatuta dagoela, erabiltzen ez dela edo Parkearen araudia aplikatuta beren zergatia galdu duten seinale guztiak (oroitzapenezko edo heriotzako errotulu, plaka edo monumentuak, mendizale-txartelontziak eta abar) lehenbailehen kendu beharko dira.

9.13.2.2.– Beharrezkoak.

9.13.2.2.1.– Pilatutako edo barreiatutako zaborrak, hondakinak edo zakarrak biltzeko aldizkako lanak egingo dira atseden-eremu, abiapuntu, aterpe ireki eta bisitari gehien jasotzen dituzten zona guztietan. Honekin batera, jarraipena emango zaio mendien garbiketari eta norbere zaborrak biltzeari buruzko kontzientziazio-politikari.

9.13.2.2.2.– Atseden-eremu, ibilbide eta aterpeetan biltzen den jende-kopurua aztertzeko jarraipen-lanak egingo dira, erabiltzaileen benetako eskaria zein den ezagutu eta etorkizunean eremu hauek hobeto antolatu eta kudeatu ahal izateko.

9.13.2.2.3.– Parkeko informazio-material guztia eta azpiegiturak behar bezala daudela ziurtatuko duten aldizkako zaintza-lanak egingo dira.

9.13.2.2.4.– Parkearen edozein azpiegituratan antzemandako kalteak edo inpaktuak (erabileraren ondoriozkoak zein edozein ezustekoren ondoriozkoak: bandalismoa, arrazoi naturalak…) lehenbailehen ezabatu beharko dira.

10.– ERAIKUNTZA.– ETA AZPIEGITURA-ALDERDIAK.

10.1.– ERAIKUNTZAK.

10.1.1.– Kudeaketa-norabideak eta -irizpideak.

10.1.1.1.– Eraikuntza-erabilerak erregulatzerakoan, protagonismo nagusia udal-plangintzako dokumentuen esku uzten da, betiere Natur Baliabideak Antolatzeko Planarekin eta honako Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailearekin kontraesanik gertatzen ez bada.

10.1.1.2.– Ondoko arauak eta irizpideak betetzeak ez ditu gainerako administrazio inplikatuek dituzten betebeharrak eta eskumenak salbuesten.

10.1.1.3.– Parkearen Kudeaketaz Arduratzen den Organoak bere kudeaketarako behar dituen eraikuntzak eskuratu beharko ditu. Horretarako, beharrezkoa denean, gaur egun partikularren eskuetan dauden eraikinak, aterpeak batik bat, kudeaketa publikoaren eskuetara itzultzeko mekanismoak abiarazi beharko ditu. Honela, Parkearen kudeaketarekin eta erabilera publikoarekin, batez ere, loturiko eraikin-behar berriak gaur egun dauden eraikinetarantz bideratuko dira, ahal den neurrian bederen.

10.1.1.4.– Parkearen Kudeaketaz Arduratzen den Organoak gaur egun dauden eraikuntzen barnealde eta kanpoaldeko ezaugarrien egokitzapena sustatuko du, bertan eraikuntza horiek gaur egun hartzen duten era-

Toda señalización: rótulos, placas o monumentos conmemorativos o funerarios, buzones montañeros, etc., que se considere deteriorada, en desuso o que por la aplicación de la normativa del Parque haya perdido su razón de ser, deberá ser retirada con la mayor brevedad posible.

9.13.2.2.– Necesarias

9.13.2.2.1.– Se acometerán labores periódicas de recogida de basuras y desperdicios acumulados o dispersos en todas las áreas recreativas, puntos de partida refugios abiertos y zonas más frecuentadas. De manera complementaria, continuar con la actual política de concienciación en cuanto a las limpiezas de los montes y a la autorrecogida de basura.

9.13.2.2.2.– Se realizarán labores de seguimiento de la frecuentación de las áreas recreativas, itinerarios y refugios con el fin de conocer la demanda real por parte de los usuarios y facilitar así la ordenación y gestión futuras de las mismas.

9.13.2.2.3.– Se realizarán labores periódicas de vigilancia que aseguren el correcto estado de todo el material informativo y las infraestructuras del Parque.

9.13.2.2.4.– Los daños o impactos detectados en cualquier infraestructura del Parque (derivados tanto del uso como de cualquier factor imprevisible: vandalismo, causas naturales...) deberán ser eliminados en la mayor brevedad posible.

10.– ASPECTOS EDIFICATORIOS E INFRAESTRUCTURAS

10.1.– EDIFICACIONES.

10.1.1.– Directrices y criterios de gestión.

10.1.1.1.– El principal protagonismo en la regulación de los usos edificatorios se confía a los documentos de planeamiento municipal, siempre que no entren en contradicción con el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales y el presente Plan Rector de Uso y Gestión.

10.1.1.2.– El cumplimiento de las siguientes normas y criterios no excluye las obligaciones y competencias que tienen las demás Administraciones implicadas

10.1.1.3.– El Órgano Gestor del Parque deberá dotarse de las edificaciones precisas a su gestión, poniendo en marcha, cuando ello sea necesario, mecanismos para la reversión a gestión pública de aquellos edificios, refugios situados en montes de Utilidad Pública fundamentalmente, actualmente en manos particulares. Se canalizará así, en la medida de lo posible, las nuevas necesidades edificatorias, especialmente las ligadas al uso público o la gestión del Parque hacia edificaciones existentes.

10.1.1.4.– El Órgano Gestor del Parque promoverá la adecuación de las características interiores y exteriores de aquellas edificaciones existentes en la actualidad en las que se observen deficiencias referidas tanto al uso

bilerari nahiz kokaturik dauden inguruneari dagozkion akatsak daudela ikusten bada.

10.1.1.5.– Parkearen Kudeaketaz Arduratzen den Organoak arreta berezia eskainiko dio abeltzaintza-jarduerarekin loturiko kultur ondarea (kortak, bordak, elurzuloak eta abar) mantentzeari eta, hala badagokio, berreskuratzeari.

10.1.1.6.– Parkearen ekipamendurako beharrezko eraikuntza-ahalegina gune jakin batzuetan, horretarako ahalmena duten lekuetan, bilduko da: Larreder, Saldropo, Baiako zentrala eta abar.

10.1.1.7.– Parke Naturalaren inguruko zonetarantz bideratuko da kudeaketarako behar den ekipamendua, bai eta Parke Naturalaren erabilera publikoa asetzekoa ere. Ahal den neurrian babes-espazioan zerbitzua eta ekipamendua gehiegi dimentsionatzeko.

10.1.1.8.– Eraikuntza-jarduketa guztiek jarraian adierazitako estilo baldintzak betetzeko ahaleginak egingo dira:

– Erreforma-obrak eraikinaren elementu arkitektoniko bereizgarri guztiak iraunarazten saiatuz egingo dira. Horrez gain, lehen agerian ez zeuden ezkutuko elementuak aurkitzen badira, garai batean izan zuten eginkizuna berreskuratzeko ahaleginak egin eta behar diren elementu berriekin harmonizatuko dira.

– Oin berriko eraikinak inguruan nagusi den estilo tradizionalari egokituko zaizkio eta kokaturik dauden ingurune naturaleko harmonia orokorrari eutsiko diote, beren konposizio orokorrari (desnibelak, moduluak, baoen proportzioak eta abar), materialei eta koloreari dagokienez, bai fatxadetan, bai eta estalkietan edo kanpoaldetik ikusten diren bestelako zatietan ere.

10.1.1.9.– Merkataritza-establezimenduetako errotulu edo iragarkiak behe-oineko baoetako barnealdeko mugetan jarriko dira, baoen eta ateburuen edo arkuen arteko atezangoak fatxadari dagozkion materialez bestelakorik gainjarri gabe, hots, libre utziz. Errotulu horiek diskretuak izango dira eta letrak zurez, burdina forjatuz, brontzez edo kalitatezko beste materialen batez eginak izango dira.

10.1.1.10.– Ekipamendu komunitarioari loturiko eraikuntzen kasuan, hauek kokaturik dauden inguruan integratu beharko dira, neurriz kanpoko bolumenak osatu gabe, eta arestian adierazi ditugunen artean aplika dakizkiekeen estilo zehaztapenetara moldatu beharko dira. Ingurunearekin nabarmenki bat ez datozen elementuak paisajean ezkutatu behar direnean, eraikuntzaren sustatzaileak landare-pantailak edo antzeko bitartekoak erabiliko ditu elementu horiek ezkutatzeko.

10.1.1.11.– Eraikuntzetako elementu lagungarriek (antenak, eguzki-plakak eta abar) beren inguruko paisajea babesteko beharretara egokitu beharko dituzte beren dimentsioak eta hauek jartzeko beharrezkoa izan-

que albergan en la actualidad como al entorno donde se ubican.

10.1.1.5.– El Órgano Gestor del Parque velará especialmente por el mantenimiento y, en su caso, recuperación del patrimonio cultural ligado a la actividad pastoril: majadas, bordas, neveras, etc.

10.1.1.6.– Se concentrará en puntos concretos, con capacidad de acogida para ello, el esfuerzo edificatorio preciso para el equipamiento del Parque: Larreder, Saldropo, Central del Baias, etc.

10.1.1.7.– Se orientará hacia las zonas limítrofes al Parque Natural equipamiento preciso a la gestión, así como a la satisfacción de la función de uso público del mismo; evitando así en la medida de lo posible, sobredimensionar el servicio y el equipamiento en el espacio protegido.

10.1.1.8.– Todas las actuaciones edificatorias se procurará respeten las siguientes condiciones de estilo:

– Las obras de reforma se realizarán procurando conservar todos los elementos arquitectónicos que dan carácter al edificio, y si se encontraran elementos ocultos que anteriormente no estuvieran visibles, se intentará devolverles su antigua función, armonizándolos con los nuevos que se precisen.

– Los edificios de nueva planta se ajustarán al estilo tradicional predominante en la zona, manteniendo la armonía general del ambiente natural donde estén ubicados en cuanto a su composición general (desniveles, módulos, proporciones de huecos, etc...), materiales y color, tanto en las fachadas como en las cubiertas u otras partes vistas desde el exterior.

10.1.1.9.– Los rótulos o anuncios de los establecimientos comerciales se colocarán en los límites del espacio interior de los huecos en planta baja, dejando libres, y sin superposición de otros materiales que los propios de la fachada, las jambas entre los huecos y dinteles o arcos. Dichos rótulos serán discretos, con las letras en madera, hierro forjado, bronce u otro material de calidad.

10.1.1.10.– En el caso de edificaciones ligadas a equipamiento comunitario, éstas deberán integrarse al entorno en el que se encuentran, evitando volúmenes desproporcionados y adaptándose a aquellas determinaciones de estilo de entre las anteriormente señaladas que les puedan ser de aplicación. En aquellos casos en los que sea precisa una ocultación paisajística de elementos poco acordes con el entorno, el promotor de la edificación procederá a la misma por medio de pantallas vegetales o medios similares.

10.1.1.11.– Los elementos accesorios a las edificaciones (antenas, placas solares, etc.) deberán ajustarse en sus dimensiones a las necesidades de protección paisajística del entorno de las mismas, siendo necesaria la

go da Parkearen Kudeaketaz Arduratzen den Organoaren baimena.

10.1.1.12.– Gaur egun dauden eraikuntzek, beharrezkoa gertatzen bada, arestian adierazitako estilo-baldintzei jarraiki integratu beharko dute paisajean.

10.1.1.13.– Organismo publikoek sustatutako eraikuntzen kasuan, Eraikuntzarako Baldintza Teknikoen Orrian obren akaberari buruzko klausulak sartu eta bete direla ziurtatu beharko du Parkearen Kudeaketaz Arduratzen den Organoak.

10.1.1.14.– Partikularrek sustatutako eraikuntzen kasuan, Parkearen Kudeaketaz Arduratzen den Organoak, eraikuntza hauek baimendu ondoren, obren akabera-baldintzak obra-proiektuan sartu eta gerora bete egin direla egiaztatu beharko du, obrak burutzen diren bitartean inguruneari eragindako edozein kalte konponduko dela ziurtatu ahal izateko.

10.1.1.15.– Gizarte- eta ekonomia-eraginpeko eremuan kultur interesa duten eraikinak zaharberritzea sustatuko da.

10.1.2.– Erregulazioak.

10.1.2.1.– Parke Naturaleko eraikuntza berriak, hiri-zona eta azpiegiturak salbu, ondoko eraikuntza-motakoak izango dira soilik:

– Nekazaritza-, abeltzaintza- edo baso-ustiapenei loturikoak edo baimen daitekeen eta lurzoruaren erabilerari dagokion beste edozein jarduerarekin loturikoak.
– Nekazaritza-, abeltzaintza- edo baso-transformazioko landa-industria txikiei loturikoak.
– Administrazio publikoek sustatzen dituzten Parkearen erabilera publikoarekin eta ekipamenduarekin loturikoak, Parkearen Kudeaketaz Arduratzen den Organoak espreski baimenduta eta beronen helburuekin bat eginik.
– Nahitaez Parke Naturalaren lurretan kokatu behar diren sistema orokorrekin edo erabilera publikoko beste sistemekin loturikoak.

10.1.2.2.– Hiri-zona eta azpiegitura gisa definitutako zonaz kanpo, eraikuntza berriak instalatzea dagokion udalerriaren plangintza-dokumentuaren bitartez erregulatu beharko da. Ez da, inola ere, lurzoruaren erabilerari lotzen ez zaion egoitza-erabilera duten eraikin berrien eraikuntza baimenduko hiri-zona eta azpiegituraz kanpo eta udal-plangintzarako dokumentuak definitutako landaguneez kanpo. Salbuespen gisa, Parkearen zerbitzuei loturiko egoitza-erabilerak baimendu ahal izango dira, bai eta honek baimentzen dituen eta pertsonal arduraduna etengabe bertan izatea eskatzen duten erabilerak ere.

10.1.2.3.– Aipatutako lehen bi erabilera-motetan barne hartutako eraikinen bat eraiki edo zabaltzeko baimen eskaerarekin batera, eta Parkearen Kudeaketaz Arduratzen den Organoak baimen-eskaera aztertu ondoren, Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailen zerbitzu eskudunek egindako txostena aur-

autorización del Órgano Gestor del Parque para su colocación.

10.1.1.12.– Las edificaciones actualmente existentes y que así lo requieran deberán proceder a su integración paisajística, siguiendo las condiciones de estilo antes señaladas.

10.1.1.13.– En el caso de edificaciones promovidas por organismos públicos, el Órgano Gestor del Parque deberá asegurarse de la inclusión y cumplimiento de cláusulas de acabado de obras en el Pliego de Condiciones Técnicas de Construcción.

10.1.1.14.– En el caso de construcciones promovidas por particulares, el Órgano Gestor del Parque deberá, previa autorización de las mismas, comprobar la inclusión en el proyecto de obra y su posterior cumplimiento de condiciones de acabado de obra que aseguren la eventual reparación de cualquier daño sobre el medio producido durante la ejecución de la misma.

10.1.1.15.– Se promoverá la restauración de edificios de interés cultural del área de influencia socioeconómica

10.1.2.– Regulaciones.

10.1.2.1.– Las nuevas edificaciones en el Parque Natural, excluyendo la Zona Urbana e Infraestructuras, se limitarán a:

– Los ligados a explotación agropecuaria o forestal o a cualquier otra actividad autorizable que así lo requiera y que se encuentre ligada al uso del suelo.
– Los ligados a pequeñas industrias rurales de transformación agropecuaria o forestal.
– Los relacionados con el equipamiento y el uso público del Parque, promovidos por Administraciones Públicas, con la autorización expresa del Órgano Gestor del Parque y en coherencia con los objetivos del mismo.
– Los relacionados con sistemas generales u otros de utilidad pública que deban emplazarse necesariamente en el territorio del Parque Natural.

10.1.2.2.– La instalación de nuevas construcciones fuera de la zona definida como Urbana e Infraestructuras deberá ser regulada por el documento de planeamiento del municipio correspondiente. En ningún caso se autorizará la construcción de nuevas edificaciones con uso residencial no vinculado al uso del suelo fuera de la zona definida como Urbana e Infraestructuras y fuera de los núcleos rurales definidos por los documentos de planeamiento municipal. Excepcionalmente serán autorizables usos residenciales ligados a servicios del Parque o usos autorizados por el mismo y que exijan la presencia permanente de personal responsable.

10.1.2.3.– Cualquier demanda de autorización de construcción o ampliación de un edificio incluido en los dos primeros tipos de uso citados deberá estar acompañada, previo sometimiento a solicitud de autorización por parte del Órgano Gestor del Parque, de un informe favorable del Servicio competente en los Departa-

keztu beharko da. Txosten horrek eraikitzeko baimena eskatzen duen nekazaritza-, abeltzaintza- edo baso-ustiapenaren bideragarritasuna kontuan hartu beharko du, bai eta eraikuntza ustiapenak planteatzen dituen beharretara egokitzen ote den aintzat hartu ere.

10.1.2.4.– Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren araudiarekin (25. ataletik 33. atalera bitartean) koherentzia gordez, ondoko zonetan soilik baimentzen dira eraikuntza berriak:

– Hiri-zona eta azpiegiturak. Afektatutako plangintza-tresnek eta zortasun-alorrean eta beste alderdi batzuetan aplikatzekoak diren araudiek ezartzen dituzten baldintzetan, Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren 33 A b) atalean aditzera ematen diren azpiegituren kasurako.

– Landazabal. Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren (17. atala) Erabilera eta Jarduerei buruzko Araudi Orokorrak ezartzen dituen baldintzetan.

– Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona. Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren (17. atala) Erabilera eta Jarduerei buruzko Araudi Orokorrak ezartzen dituen baldintzetan.

– Aurrerapen ekologikoko zona. Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren (17. atala) Erabilera eta Jarduerei buruzko Araudi Orokorrak ezartzen dituen baldintzetan, betiere ura kutsatzeko arriskutsuak ez diren eraikuntzak badira.

– Kontserbazio aktiboko II zona. Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren arabera (29. atala), zonan baimentzen diren eta aldez aurretik dauden erabilerak eta jarduerak zuzen garatzeko hertsiki beharrezkoak direnak soilik eta, nolanahi ere, gaur egun dauden eraikuntzako elementu-motak erabiliz eta gaur egungo eraikuntza-intentsitatea areagotu gabe.

– Kontserbazio aktiboko I zona. Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren arabera (29. atala), zonan baimentzen diren erabilerak eta jarduerak zuzen garatzeko hertsiki beharrezkoak direnak soilik eta, nolanahi ere, gaur egun dauden eraikuntzako elementu-motak erabiliz eta gaur egungo eraikuntza-intentsitatea areagotu gabe.

10.1.2.5.– Parkeko Lurzoru Urbanizaezinean gaur egun dauden eraikuntzetan egin beharreko jarduketa oro dagokion udalerriaren plagintzarako dokumentuaren bidez eraenduko da eta Parkearen Kudeaketaz Arduratzen den Organoak onetsi beharko du. Organo honek Parke Naturalaren eta erabilera publikoko planaren helburuekiko koherentzia mantentzeaz arduratuko da. Ez da, inola ere, babes-zonan, erreserba-zonan edo erreserba integraleko zonan eraikinak eraiki edo zabaltzeko jarduketarik baimenduko.

10.1.2.6.– Aurri egoeran diren eraikinen inbentarioa egingo da eta eraikuntza- balioa, kultur balioa eta antzeko balioa dutelako berritu daitezkeenak adieraziko dira. Eraberritze hauek egiterakoan jatorrizko eraikina-

mentos de Agricultura de las Diputaciones Forales de Álava y Bizkaia. Tal informe deberá contemplar la viabilidad de la explotación agropecuaria o forestal para la que se solicita la edificación, así como la adecuación de ésta a las necesidades planteadas por aquella.

10.1.2.4.– En coherencia con la normativa del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales (Artículos 25 a 33), sólo se permiten nuevas construcciones en las zonas siguientes:

– Zona Urbana e Infraestructuras. En las condiciones establecidas por los instrumentos de planeamiento afectados y las normativas de aplicación en materia de servidumbres y otros aspectos para el caso de las infraestructuras señaladas en el Artículo 33 A b) del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales.

– Zona de Campiña. En las condiciones establecidas por la Normativa General de Usos y Actividades del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales (Artículo 17).

– Zona de Potenciación Ganadero/Forestal. En las condiciones establecidas por la Normativa General de Usos y Actividades del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales (Artículo 17).

– Zona de Progresión Ecológica. En las condiciones establecidas por la Normativa General de Usos y Actividades del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales (Artículo 17), siempre y cuando se trate de construcciones que no supongan riesgo de contaminación de las aguas.

– Zona de Conservación Activa II. Sólo las estrictamente necesarias para el correcto desarrollo de los usos y actividades permitidos y preexistentes en la zona, según el del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales (Artículo 29) y, en cualquier caso, utilizando el tipo de elementos constructivos actualmente existente, sin incrementar la intensidad constructiva actual.

– Zona de Conservación Activa I. Sólo las estrictamente necesarias para el correcto desarrollo de los usos y actividades permitidos en la zona según el del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales (Artículo 29) y, en cualquier caso, utilizando el tipo de elementos constructivos actualmente existente, sin incrementar la intensidad constructiva actual.

10.1.2.5.– Toda actuación a realizar en edificaciones ya existentes en el Suelo no Urbanizable del Parque se regirá por el documento de planeamiento del municipio correspondiente, debiendo ser aprobada por el Órgano Gestor del Parque, que velará por el mantenimiento de la coherencia con los objetivos del Parque Natural y el plan de uso público. En ningún caso se permitirán actuaciones de ampliación o reconstrucción de edificaciones en las zonas: Protección, Reserva, Reserva Integral.

10.1.2.6.– Se realizará un inventario de edificaciones en ruinas, señalando aquellas que por su valor edificatorio, cultural, etc., puedan ser reconstruidas. Estas reconstrucciones se harán manteniendo la estructura y

ren egitura eta tamaina mantenduko da eta ezin izango dira sarbideak hobetu, aldez aurretik ez badaude.

10.1.2.7.– Gainerako eraikinetan, eraikinen barrualdeko konponketak, eraikinaren mantenimendu orokorrekoak, apaingarriak edo, gehienez ere, teilatuaren altueran egitekoak (pertsona bat zutik egoteko moduan( soilik baimenduko dira. Ez da azalera eraikia gehitzea baimenduko.

10.1.2.8.– Hiri-zona eta azpiegiturez kanpo, energia eta fluidoak banatzeko linea berriak lurpetik bideratuko dira eta Parkearen Kudeaketaz Arduratzen den Organoaren baimena izan beharko dute, energia elektrikoa transformatzeko azpiestazioak bezalaxe. Salbuespen gisa, eta gaur egun dauden azpiegitura edo eraikinen zerbitzurako edo Parkearen zerbitzurako, airetiko lineak ere baimendu ahal izango dira. Araudi honetaz kanpo geratzen dira, era berean, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegorako interes orokortzat izendatutako azpiegiturak.

10.1.2.9.– Landazabaleko zonan lurzorua hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa berriro kalifikatzeko, ez da beharrezkoa gertatuko Baliabideak Antolatzeko Plana aldatzea. Landazabaleko zonaz eta hiri-zona eta azpiegiturez bestelako zonetan eragina izango duen birkalifikazioak Antolatzeko Planaren berrikuspen osoa eragingo du.

10.1.2.10.– Ez da eraikuntza-erabilerari lotzen zaion isurketa kutsatzailerik baimenduko. Bere erabilera dela medio, beharrezkoa duen eraikuntza orok saneamendu-sistema egokia izan beharko du: hobi septikoa edo antzekoa, sare hidrografikora eta zorura isurketa kutsatzailerik egin ez dadin eragotziko duena.

10.1.2.11.– Parkearen barruan kokatzen diren aterpeetako titular guztiek beraiek sortutako hondakinez arduratu beharko dute, bai eta hauen baldintza estetikoez eta ingurunearekiko egokitzapenaz ere. Aterpearen lagapenak dirauen bitartean, antzeman daitezkeen akatsak konpontzeko beharrezkoak izan daitezkeen obrak egitea exiji dakieke.

10.1.2.12.– Parkearen barruan kokatzen diren aterpe publikoetako erabiltzaileek beraiek sortutako hondakinez arduratu beharko dute.

10.1.2.13.– Aterpe partikularren erabilerak ez du, inola ere, egoitza-erabilera ekarriko.

10.1.3.– Jarduketak.

10.1.3.1.– Presazkoak.

10.1.3.1.1.– Baiako zentralaren eremuko Parketxea eta honi lotzen zaion ekipamendua (atseden-eremua, aparkalekua eta abar) egokitzea.

10.1.3.1.2.– Areatzako Parketxea eta honi lotzen zaion ekipamendua (atseden-eremua, aparkalekua eta abar) egokitzea.

tamaño del edificio original, sin posibilidad, si no existe anteriormente, de mejora de accesos.

10.1.2.7.– En el resto de edificaciones, únicamente se autorizarán las reparaciones que afecten al interior, de mantenimiento general de la edificación, ornato o como máximo a la altura del tejado, de manera que un persona pueda estar de pie. No se autorizará ampliación de la superficie construida.

10.1.2.8.– Fuera de la Zona Urbana e Infraestructuras, las nuevas líneas de distribución de energía y fluido deberán ir enterradas; y precisarán, al igual que las subestaciones de transformación de energía eléctrica, autorización del Órgano Gestor del Parque. Excepcionalmente, y como servicio a infraestructuras o edificaciones ya existentes o para el servicio del Parque, podrán ser autorizadas líneas aéreas. De esta normativa se exceptúan asimismo aquellas infraestructuras declaradas de interés general para la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Gobierno Vasco.

10.1.2.9.– La recalificación del suelo hacia Suelo Urbano o Urbanizable en la Zona de Campiña no precisará de la modificación del Plan de Ordenación de los Recursos. La recalificación que afecte a otras zonas distintas a las de Campiña y Urbana e Infraestructuras precisará de la revisión del Plan de Ordenación.

10.1.2.10.– No deberá permitirse la realización de ningún tipo de vertido contaminante asociado al uso edificatorio. Toda edificación que en función de su uso así lo precise, deberá contar con un sistema de saneamiento adecuado: fosa séptica o similar, que impida aportes contaminantes a la red hidrográfica y al suelo.

10.1.2.11.– Todos los titulares de refugios situados en el interior del Parque deberán responsabilizarse de los desechos generados por los mismos, así como de las condiciones estéticas y de acondicionamiento al entorno; pudiéndoseles exigir durante el tiempo que dure la cesión de los mismos las obras necesarias para resolver las deficiencias que pudieran observarse.

10.1.2.12.– Los usuarios de los refugios públicos abiertos sitos en el Parque deberán responsabilizarse de los desechos generados por los mismos.

10.1.2.13.– El uso albergado por los refugios particulares no podrá en ningún caso suponer su consideración como uso residencial.

10.1.3.– Actuaciones.

10.1.3.1.– Urgentes.

10.1.3.1.1.– Proceder a la adecuación del Parketxe y equipamiento asociado al mismo: área recreativa, aparcamiento, etc., en el área de la Central del Baias.

10.1.3.1.2.– Proceder a la adecuación del Parketxe y equipamiento asociado al mismo: área recreativa, aparcamiento, etc. en Areatza.

10.1.3.1.3.– Baiako zentraleko atseden-eremuaren parean ibaia gurutzatzeko zubi txiki eta integratua eraikitzea.

10.1.3.2.– Beharrezkoak.

Parke Naturalean gaur egun dauden eraikinen eta aurrien inbentario zehatza egitea, abeltzainen korta eta bordei, elurzuloei, ikaztegiei, kirikiñoei eta mintegiei arreta berezia eskainiko zaie eta gaur egun dagoen errolda osatu egingo da. Inbentario honetan gaur egun Parkean eta honen gizarte- eta ekonomia-eraginpeko eremuan dauden aterpeen erregistroa barne hartuko da, erregistro honek, halaber, jabe, erabiltzaile eta abarri buruzko datuak gaineratu beharko ditu.

Inbentario honek Parkean kokatzen diren eraikin eta azpiegituren egoera eta erabilerari buruzko ebaluazioaren azterlan sistematikoa barne hartuko du. Azterlan honek ingurunearekiko integrazio-maila eta beren erabilera zehaztea ahalbidetuko du, honela errazagoa gertatuko baita hauen kontrola, egokitzapena eta mantenimendua, Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailearen helburuekin bat etorriz. Azterlan honek aurri-itxura azaltzen duten eraikin horietan ahalegin berezia egin beharko du (abeltzaintza-bordetan batik bat), hauen erabilera, Parke Naturalean dauden eraikinekiko jarduketa-plan baten barruan, definitu eta bideratzeko xedez.

10.1.3.3.– Komenigarriak.

10.1.3.3.1.– Parke Naturalean gaur egun dauden eraikuntzekiko jarduketa-plana ezartzea. Plan horren helburu nagusiak honako hauek izan behar dute:

– Eraikinen berreskurapen estetikoari ekitea, batik bat sarobeetan, baldin eta halakoren beharrean badaude. Ahalegin publikoa borda altuetarantz bideratu beharko da, batik bat, Egillolarra edo Manurgako Txabola Handia esate baterako.
– Ondare baliorik ez duten eraikinak, beren erabilera galdu dutenak eta paisajean inpaktua dutenak eraistea.

– Parke Naturalaren ekipamendu-beharretarako erabil daitezkeen eraikinak identifikatzea, bai eta berez kultura- edo ondare-balio dutelako edo zerbitzuak zein ekipamenduak barne hartzeko aukera eskaintzen dutelako erabilera publikorako eta interpretaziorako erabil daitekeen edukiren bat duten eraikinak identifikatzea.

10.1.3.3.2.– Kudeaketa-norabide eta -irizpideetan ezarritako estilo-baldintzak aplikatzea sustatzen duten partikularrei eta Parkeaz kanpoko bestelako agenteei zuzendutako suspertzeko mekanismoak diseinatzea.

10.1.3.3.3.– Pagomakurrerako igoeran dauden hiru aterpe publiko txikiak berritzea, Parkearen kudeaketa eta zaintzari loturiko erabilerak barne hartzeko edo bisitariek bertan ostatu hartzeko xedez.

10.1.3.3.4.– Arkaraiko aterpea berritzea.

10.1.3.1.3.– Construcción de un puente sencillo e integrado para salvar el río a nivel del área recreativa de la Central del Baias.

10.1.3.2.– Necesarias.

Realizar un inventario exhaustivo de las edificaciones y ruinas existentes en el Parque Natural, con especial atención a las majadas y bordas de pastor, neveras, carboneras, kirikiños y mintegis, completando el Censo actualmente existente. Integrar dentro del mismo un registro de los refugios existentes en el área del Parque y su área de influencia socioeconómica, que incluya datos relativos a propietarios, usuarios, etc.

Este Inventario incluirá un estudio sistemático de Evaluación del Estado y Uso de las Edificaciones e Infraestructuras localizadas en el Parque, que permita determinar el grado de integración paisajística al entorno y el uso que sustentan, con el fin de favorecer el control, mejora y mantenimiento de éstas de forma acorde con los objetivos del Plan Rector de Uso y Gestión. Este estudio deberá incidir especialmente sobre aquellos edificios que presenten un aspecto ruinoso (bordas ganaderas fundamentalmente), con el fin de definir y orientar su vocación de uso, dentro de un Plan de Actuación respecto a las edificaciones existentes en el Parque Natural.

10.1.3.3.– Convenientes.

10.1.3.3.1.– Establecer un Plan de Actuación respecto a las edificaciones existentes en el Parque Natural. Los fines principales de dicho Plan deben ser:

– Proceder a la recuperación estética de aquellas edificaciones, majadas fundamentalmente, que así lo precisen. El esfuerzo público debiera orientarse fundamentalmente hacia las bordas altas. Es el caso de Egillolarra o de la Txabola Mayor de Manurga.
– Proceder a la demolición de aquellas edificaciones que se considere que no poseen valor patrimonial, hayan perdido su uso y supongan un impacto paisajístico.
– Identificar aquellas edificaciones susceptibles de ser utilizadas para las necesidades de equipamiento del Parque Natural o que posean algún contenido susceptible de ser utilizado para el uso público e interpretación del mismo, bien en razón a su propio valor cultural o patrimonial, bien por las posibilidades que ofrezcan para albergar servicios o equipamiento.

10.1.3.3.2.– Diseñar mecanismos de incentivación, de cara a los particulares y otros agentes ajenos al Parque que fomenten la aplicación de las condiciones de estilo establecidas en las Directrices y criterios de gestión.

10.1.3.3.3.– Reformar los tres pequeños refugios públicos existentes en la subida a Pagomakurre con la finalidad de que alberguen usos ligados a la gestión y guardería del Parque o alojamiento de visitantes.

10.1.3.3.4.– Restaurar el refugio de Arkarai.

10.1.3.3.5.– Panoramika zabal eta ederra duten lekuetan behatzeko eta orientatzeko gune txikiak instalatzea.

10.1.3.4.– Baldintzatuak.

10.1.3.4.1.– Harrera eta informaziorako bigarren mailako zentroak barne hartzea ahalbidetzen duten eta gaur egun dauden eraikinak egokitzea.

10.1.3.4.2.– Larrederren aurreikusitako ekipamendua instalatzea, zona horretan egin beharreko plan bereziak arautzen duenaren arabera.

10.1.3.4.3.– Saldropoko ingurunean beharrezko ekipamendua instalatzea.

10.1.3.4.4.– Parkean kokatzen diren eraikinen eta azpiegituren egoera eta erabilera ebaluatzeko azterlanaren emaitzak aintzat hartuta, hondakin-urak arazteko mekanismoak behar dituzten aterpeetan adierazitako mekanismoak instalatzea.

10.1.3.4.5.– Zenbait borda turismorako zaharberritzea eta alokatzea.

10.2.– AZPIEGITURAK.

10.2.1.– Kudeaketa-norabideak eta -irizpideak.

10.2.1.1.– Gaur egun Parkean dagoen bidesarea hobetzea eta zaintzea, baimendutako ibilgailuak ahalik eta baldintzarik onenetan eta denbora tarte handienean bertatik iragatea ahalbidetuz. Hobekuntza eta zainketako lan hauek sakonagoak izango dira sare nagusian, izaera estrategikoa dute-eta.

10.2.1.2.– Ibilgailu astunei Parkeko pistarik nagusienetan zirkulatzeko arauak ezartzea, betiere bidesareari kalte garrantzitsuak eragin diezazkioketen baldintzak gertatzen badira (egun euritsuak, ardatzeko karga gehiegizkoa).

10.2.1.3.– Eremura sartzen diren ibilgailu motoredunak kontrolatzeko erraztasunak jartzea, horretarako sarbide nagusiak igarotzeko eta aparkatzeko egokitu eta zehaztuko dira, zonaren erabileraren eta izaeraren arabera.

10.2.2.– Erregulazioak.

Gorbeiako Parke Naturaleko Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren 17. atalak arautzen du ibilgailu motoredunak igarotzea. Adierazitako atalaren 1. arauaren indarrez, Gorbeiako Parke Naturaleko bide eta pistak honela sailkatzen dira:

10.2.2.1.– Igarobide libreak.

Errepideak, A-68 autopista, azken honen zerbitzurako bideak, herriguneetako kaleak eta auzo eta baserri bakanetara heltzeko bideak.

10.2.2.2.– Igarobide baimenduak:

Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzaile honetan definitzen diren atseden-eremuetaraino heltzen diren pistak eta bideak. Parkearen Kudeaketaz Arduratzen den Organoak bidezko hartzen dituen mugak ezarri ahal izango ditu hauetan.

10.1.3.3.5.– Instalación de pequeños puntos de observación y orientación en lugares con amplias y bellas panorámicas.

10.1.3.4.– Condicionadas.

10.1.3.4.1.– Adecuar edificaciones existentes que permitan acoger centros secundarios de acogida e información.

10.1.3.4.2.– Instalación del equipamiento previsto en Larreder según dicte Plan Especial a realizar en dicha zona.

10.1.3.4.3.– Instalación del equipamiento necesario en el entorno de Saldropo.

10.1.3.4.4.– Instalar mecanismos de saneamiento de aguas residuales en los refugios en los que se justifique su necesidad a la vista de los resultados del Estudio de Evaluación del estado y uso de las edificaciones e infraestructuras localizadas en el Parque.

10.1.3.4.5.– Restauración y alquiler turístico de algunas bordas

10.2.– INFRAESTRUCTURAS.

10.2.1.– Directrices y criterios de gestión.

10.2.1.1.– Mejorar y conservar la red viaria actual del Parque de forma que permita, durante el mayor período de tiempo y en las mejores condiciones posibles, el tránsito de los vehículos autorizados. Estos trabajos de mejora y conservación deberán ser particularmente intensos en la red principal, dado su carácter estratégico.

10.2.1.2.– Regular en las principales pistas del Parque la circulación de vehículos pesados en condiciones que pudieran dar lugar a daños importantes para la red viaria (días lluviosos, carga por eje excesiva).

10.2.1.3.– Favorecer el control de los vehículos a motor que acceden al área mediante la determinación y el acondicionamiento para el tránsito y estacionamiento de los principales accesos de forma acorde con el uso y carácter de la zona.

10.2.2.– Regulaciones.

El tránsito con vehículos a motor se encuentra regulado en el artículo 17 del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Parque Natural de Gorbeia. En virtud de la norma 1 del citado artículo, se clasifican los caminos y pistas dicho Parque del siguiente modo:

10.2.2.1.– Vías de libre tránsito.

Carreteras, autopista A-68, vías de servicio de esta última, calles de núcleos habitados y caminos de acceso a barrios y caseríos aislados

10.2.2.2.– Vías de tránsito autorizado:

Pistas y caminos del Parque que conduzcan hasta las áreas recreativas definidas en este Plan Rector de Uso y Gestión. En ellas el Órgano Gestor del Parque podrá establecer las limitaciones que considere oportunas.

10.2.2.3.– Igarobide murriztuak:

Gainerako pista eta bideak.

10.2.3.– Jarduketak.

10.2.3.1.– Ekipamendua

10.2.3.1.1.– Presazkoak.

10.2.3.1.1.1.– Sarriatik Baiako zentralaren eremuko Parketxerako sarbidea hobetzea.

10.2.3.1.1.2.– Ondokoetan ibilgailuak igarotzeko mugak jartzea:

– Baiako bidean, Baiako zentralaren atseden-eremuaren parean.
– Aretzaga-Markina pistan.
– Manurga-Gorbeia pistan, Txabola Handian.
– Zubialdeko pistan, harrobien parean, ibaiaren ibiaren aurretik.
– Ubidea - Oketa pistan.
– Barazar-Arimekorta pistan.
– Lanbreabe-Iondegorta pistan.
– Pagomakurreko bidean: Larrederrren itxitura irekia eta itxitura Pagomakurren.
– Bikotx Gane - Irumugarrieta bidean eta Bikotx Gane - Mendigane bidean.
– Gallartuko bidean, Altzagortako atseden-eremuan eta Pagomakurreko bidearekiko gurutzagunean.
– Zastegiko bidean, Belaustegiko atseden-eremuan.
– Usabel-Asentsiolako pistan.
– Ziorroga-Bortal pistan eta Ziorroga-Amediano pistan.
– Katxanbianoko pistan.
– Sarriatik Baiako zentralaren atseden-eremurako oinezkoentzako sarbidearen hasieran.

Itxitura hauek ikus daitezen, isladatzaileak edo ikusgarritasuna erraztuko duten beste gailu batzuk jarriko dira, txirrindulariek edo pista hauen beste erabiltzaile batzuek istripurik izan ez dezaten.

10.2.3.1.1.3.– Bidesarean baimenik gabeko ibilgailuen zirkulazioak eragindako arazo puntualak gertatzen direnean soilik ezarriko dira muga berriak.

10.2.3.1.2.– Beharrezkoak.

10.2.3.1.2.1.– Muruako harrobietara heltzeko pista egokitu eta konpontzea. Urtegiaren inguruan anfibioentzako pasabideak egitea.

10.2.3.1.2.2.– Muruako Parritxiki zonan aparkaleku txiki bat egitea, gehienez 25 ibilgailuentzako aparkalekua. Hariztira ibilgailuak sar ez daitezen neurriak hartzea.

10.2.3.1.2.3.– Bizkaiko Foru Aldundiaren bide-plana berrikustea, Parkean gaur egun dauden behar berrietara egokituz.

10.2.3.1.2.4.– Bidesarea pistetatik (ez bideetatik) bideratzen den ibiltarteetan bide bakar bat egokitzea, egon daitezkeen gurpil-arrastoak ezabatuz. Honela,

10.2.2.3.– Vías de tránsito restringido:

Resto de pistas y caminos.

10.2.3.– Actuaciones.

10.2.3.1.– Equipamiento

10.2.3.1.1.– Urgentes.

10.2.3.1.1.1.– Mejora del acceso desde Sarria al Parketxe de la Central del Baias.

10.2.3.1.1.2.– Instalación de limitaciones al tránsito a motor en:

– Senda Baias, a la altura del área recreativa de La Central del Baias
– Pista Aretzaga-Markina.
– Pista Manurga-Gorbeia en Chabola Mayor.
– Senda Zubialde, a la altura de las Canteras, antes del vado del río.
– Pista Ubidea - Oketa.
– Pista Barazar-Arimekorta.
– Pista Lambreabe-Iondegorta.
– Senda Pagomakurre: cierre abierto en Larreder y cierre en Pagomakurre.
– Bikotx Gane - Irumugarrieta y Bikotx Gane - Mendigane.
– Senda Gallartu, en el área recreativa de Altzagorta y en el cruce con la Senda Pagomakurre.
– Senda Zastegi, en el área recreativa de Belaustegi.
– Pista Usabel-Asentsiola.
– Pista Ziorroga-El Bortal y Pista Ziorroga-Amediano.
– Pista Katxanbiano.
– Inicio del acceso peatonal al área recreativa de la Central del Baias desde Sarría.

En dichos cierres se colocarán reflectantes u otros dispositivos que faciliten su visibilidad, de cara a prevenir accidentes de ciclistas u otros usuarios de las pistas.

10.2.3.1.1.3.– La instalación de nuevas limitaciones en la red viaria sólo se efectuará en caso de detectarse problemas puntuales de circulación de vehículos no autorizados.

10.2.3.1.2.– Necesarias.

10.2.3.1.2.1.– Acondicionamiento y reparación de la pista que accede a las canteras de Murua. Instalación de pasos para anfibios en la proximidad del embalse.

10.2.3.1.2.2.– Instalación de un pequeño aparcamiento (máximo 25 plazas) en la zona de Parratxi (Murua). Adopción de medidas disuasorias para impedir el paso de vehículos al robledal.

10.2.3.1.2.3.– Revisar el Plan de Caminos de la Diputación Foral de Bizkaia, adecuándolo a las nuevas necesidades existentes en el Parque.

10.2.3.1.2.4.– Acondicionar una vía única y deshacer el resto de rodadas presentes en los tramos en los que la Red de sendas discurra por pistas, no por sende-

hauen balio estetikoa areagotzen da, Parkearen zerbitzuetara hurbiltzea errazten da eta bide gehiegi egon dadin eta, horrenbestez, bisitariak gal daitezen saihesten da.

10.2.3.1.2.5.– Parkearen barruan igarobide baimendua duten ondoko pistetan, pisten ertzetan, aparkatzeko bereziki egokitutako lekuetatik kanpo, aparkatzeko debekua gogorarazten duten kartelak jarriko dira: Baiako zentrala, Muruako harrobiak, Beraza-Maltzarraga, Barazar eta Pagomakurre.

